

BALEIKE

200 pta.

67. zenb.



● **Udal
aurrekontuak
onartu dira
behingoz**

● **Badatoz
Santelmoak!**

● **Udaleko mapa
kartografiko-
toponimikoa
martxan**

● **“Txato”ren
heriotzaren epaiketa:
kontraesanen auzia**

**Zumaia eta olarroa
gehigarri berezia**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

ALAI AUZATEGIA, 12 TEL: 943 860 258



Bertan
aurkituko dituzu:

- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Txarkuteria bikaina
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

Foronda kultur etxea

tel.: 943 86 04 12

faxa: 943 86 17 42

e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue

Uxua Ostolaza

Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre

Esther Aizpurua

Eneko Dorronsoro

Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Gorka Zabaleta

J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub

taldea, Ingurugiro tailer

eskola, Miriam Romatet,

Jon Manzisidor,

Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Javier Navarro Araya

Argazkiak

Baleike

Disenua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza

(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Breda berriz menperatu nahian

Hasieran ez nuen zergatia ulertu. Zergatik borratu laster botako duten horman zegoen murala? Hainbeste urte bertan zeramatzan murala? Ez naiz oroitzen zenbat urte eman dituen hor, baina zazpi izango dira. Garai hartan, landu genuen zirriborrea gustatu zitzaizela eta, pareta marrazteko baimena emateaz gain, pintura ere ordaindu ziguten. Neguko bi egun hotz pasa genituen Velazquezenak egin nahian. Bredako soldaduen lantzak Zumaiako zeru iluna urratzen jarri genituen eta bat-batean hori guztia gris kolorekoa bihurtu dute. Zergatik?

Kalean entzun nuen arrazoiaren zurrumurrua: "Kirol-portuak 200 milioiko galerak izan omen ditu". Diru galeraren minak eraginda ezabatu ote dute gure marrazkia? Hasieran hala pentsatu nuen, baina orduan konturatu nintzen zein zen benetako arrazoiak: Zumaiako Bredan, belaontzien mastek itsasoa kaiolatzen zuten, Zumaiako Kirol-portuan, berriz, ez dago apenas horretarako belaontzirik. Gure hutsegitea zuzentzeko egin dute! Eskerrik asko!



Josu Waliño

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



Udaleko mapa kartografiko-toponimikoa egingo du Etnogintza enpresak



Etnogintza enpresak egingo du Udaleko mapa kartografiko-toponimikoa, Eusko Jaurlaritzako, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren dirulaguntzarekin, Zumaia lehiaketa irabazi ondoren.

Mapak 1:10.000 eskala izango du eta 35 km-tako azalera irudikatuko du. Eraikin guztiak, ubide eta bideak, eta toponimia nagusia jasoko dira bertan, eta piktogramen bidez interes historiko etnografiko berezikoak diren elementu guztiak (dorretxe, eliza, hartzulo e.a) eta erabilera publikoa izan dezaketenak (gasolinera, nekazal turismoa e.a) nabarmenduko ditu.

Etnogintza enpresak beste hogeitalau herritan egin ditu honelako lanak, eta sei hilabetetako epea du Zumaia burutzeko.

Luis del Barriok, bertako arduradunak azaldu digunez, lehenengo fasean tokiko informazioa biltzen da. Honela, herritarrekin elkarrizketak eginez toponimia biltzen duten espezialistek eta mapa egiteko datuak biltzen dituzten kartografoek udalerrria goitik-behera arakatzan dute lehenengo asteetan. Ondoren filologo, dokumentalista eta historiataileek lantzen dute jasotako informazioa. Lehenengoez toponimien forma

normalizatua finkatzen dute, eta beste biek aurreko taldeak identifikatu dituen elementu historiko eta etnologikoen interesa neurtzen dute. Azkenik informatiko eta maketa-tzaileek informazio guztia digitalizatu eta argitaratuko den materialean gauzatzen dute. "Lantaldeaz gain, argazkilariek edota udaletxeko artxiboez eskaintzen diguten kolaborazioa ere ezinbestekoa da, noski" gaineratu digu Luisek.

Maila guztietako bideak, errepide, bide, pista asfaltatu eta basabideak, jasotzen dituenek, piktogramen laguntzarekin, oso erabilgarria izan daiteke



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a

mapa herriaren inguruetatik hainbat ibilaldi antolatzeko.

Hala ere, Luisi ekarpenik garrantzitsuena toponimien inguruan egin den lana iruditzen zaio. 350en bat bildu dituzte. Ez guztiak, baina bai garrantzitsuenak edo jatorrizkoak eta maila guztietakoak (eraikin, auzo, paraje, harri e.a.). Bilketa horretan toponimoen forma normalizatuak ere finkatu dituzte, hau da, Euskaltzaindiaren arauen arabera forma egokiak liratekeenak. Mapan forma horiek jasoko dira, baina maparekin batera argitaratuko den erregistro toponimikoan forma erabilia ere jasoko da normalizatuaren ondoan. Adibidez, Epiola litzateke forma erabilia, eta Epelola forma normalizatuak.

"Duela pare bat belaunaldi toponimoen transmisioa galtzen hasi zen" dio Luisek. "Jendeak mendi eta larreetan lan egiten zuenean, edo batetik bestera mugitzeko bizikleta baino ez zeukanean, inguruko toponimo guztiak erabiltzen zituen bere eguneroko bizitzan. Gero industrializazioarekin tailerrean lanean ari denak toponimo horien beharra galdu egiten du, eta ondorioz toponimoak galtzeko arriskua areagotu egin da" azaldu digu. Toponimoen iraupena ziurtatzea da, bada, lan honen lehen helburuetako bat. Gero toponimoek

beste lan batzuk egiteko oinarri bezala ere balio dezaketela dio Luisek.

"Mutrikuko mapa egiten ari ginela, adibidez, 'Kredo harria' delako haitza topatu genuen. Kuriositatea piztu zigun toponimoak eta galdezka ibili ondoren lortu genuen istorioa jakitea: harria Olatz auzotik herriko hilerrirako corpus bidean, hau da, hilak eramateko bidean zegoen Kalbarioko ermita ikusten zen lehenengo tokia seinatzen zuen harri horrek, eta hila lurrean utzita Kredo bat errezatzen zen bertan. Algorriko balezulok ere izango du istoriaren bat atzetik, Artadiko Torre Zaharrek beste hainbeste e.a. Ohiturak, kondairak, lanbideak, linajeak eta etnologiaren inguruko hainbat eta hainbat informazio gordetzen da toponimoen atzean." azaldu digu. "Bilketa egiten duzunean horrelako lanetan sakontzeko gogoarekin gelditzen zara, baina hala ere oraingoz ez dago horretarako dirulaguntzarik" kexatu da Luis. Mapa honetan bilketa lanera mugatu dira, toponimoen sailkapen eta ikerketa sakonagoetan sartu gabe. "Egin dugun lanaren beste erabilera bat, sortzen diren urbanizazio berrientzako izendegiarena da" komentatu digu, "askotan zer izen jarri ez dakitela ibiltzen dira, eta egokiena bertako terrenoa eta baserriaren izena jartzea litzateke nire

ustez, horrela izenek aldaketa urbanistikoek gainetik iraun dezaten".

Udararako kalean egongo da material guztia. Mapa, Oikia, Artadi, Narrondo auzoen estrakto banarekin eta inguruko hiruogeita hamabost baserrien eta hiru ermiten argazkiekin ilustratuta argitaratuko da. Paperean aterako dena Udalaren esku geldituko da herritarren artean bana dezan, eta digitalizaturiko lana (berrogehi geruzatan digitalizatu dute mapa) Jaurilaritzaren esku geldituko da, burutzen ari den atlas linguistikoan barneratzeko eta aurrera begira egin daitezkeen lanetan datu-base bezala erabiltzeko.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak



Zumbillo, 4 Tel. 861407

ARGIA

ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe

Okindegia eta gosariak



Kale nagusia, 2 Tel. 861521

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Onartu dira 2000 urteko Udal aurrekontuak

Azken hilabeteotan Zumaiaiko Udala osatzen duten alderdi politikoen artean izan diren tira-birei jaramon eginez gero, nahiko zaila ematen zuen 2000 urte honetan Zumaiaiko Udal Aurrekontu batzuk izatea. Hor dago, adibidez, orain pare bat hilabete Udaletxean izan zen ez-ohiko Pleno zalapartatsua. Pleno hartan, Udalak aurrekonturik ez zuela eta inbertsio batzuk egiteko hainbat diru partida onartu ziren Kreditu Aldaketa bitartez. Pleno haren ondoren, bazirudien 1999ko aurrekontu prorrogatuekin aurrera egin beharko zuela Zumaiaiko Udalak, baina, badirudi azken aste hauetan EAJ eta EAren artean mugimendu batzuk izan direla

eta horiei esker Aurrekontuak onartu egin dira.

Pasa den martxoaren 30eko ohiko Plenoan onartu ziren aurtengo Udal Aurrekontuak. Guztira aldeko zazpi boto izan ziren (EAJ eta EArenak) eta aurkako bost (EH eta PSOEnak). EHko ordezkariak bi arrazoiengatik eman zuten aurkako botoa. Lehena, aurrekontuak egitean erabili den prozeduragatik. Beraien ustez, prozedura horren erabilerak behartu egin ditu ezezkoa ematera. Aipatu zuten, baita ere, ez direla oso aurrekontu argiak izan, beraien esanetan oso ezkutatuak izan baitira. Alderdi horretako zinegotziek zuzenketa puntual batzuk ere aurkeztu zituzten bai Hazienda Batzordean eta baita Udal Plenoan ere. Aurka egiteko beste arrazoia, zerbitzuen pribatizazioa da. Azken urteotan pribatizatu diren zerbitzu batzuk berriro publikoak izatea eskatu zuten EHko zinegotziek, horrela lanpostu gehiago lortzeko aukera ere izango baitzen. Horien

esanetan lanpostuen kalitatea ere hobetu beharko litzateke, pribatizazioak ez baititu lan baldintzak hobetzen.

PSOeko zinegotziek arrazoi nagusi batengatik eman zieten ezezkoa Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuei: Aurrekontu hauetan Udalbiltzari ematen zaion diru kopuruagatik. Beraien esanetan, PSOek ez du onartzen instituzio hori, eta ezin diote inolaz ere baiezkota eman halako diru partida bat jasotzen duen aurrekontu bati. Hala ere zuzenketa partzial batzuk aurkeztu zituzten Plenoan zehar, eta horietako batzuk aho batez onartu ziren.

EAKo zinegotziek baiezkota botoa eman zieten aurrekontu hauei nahiz eta zuzenketa partzial batzuk aurkeztu, hala nola, Polikiroldegiko tarifei eta Oxforden erabilerari dagokionez. Urkome delako erakunde bati diru kopurua jaistearen aldeko beste zuzenketa partzial bat ere aurkeztu zuten EAKo zinegotziek. Azken zuzenketa hori ere onartu egin zuen Plenoak.

Aurrekontuak

Orotara aurrekontuak 1.844.050.310 pezetakoak dira, horietatik 1.170.408.945 Udalaren ohiko aurrekontuak dira, 90.122.365 pezeta San Juan Egoitzakoak, 22.695.000 Udal Musika Patronatuarenak eta gainerako 575.574.000 pezetak Zumaia Lantzen udal elkartearenak.

Udal Gobernuaren esanetan, politika ekonomikoari dagokionez, helburu nagusiak aurreko urteko berberak dira: diru sarrerak irteerak baino



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 861018



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

handiagoak izatea, horrela inbertsio gehiago egiteko diru kopuru handiagoa lortzea, eta herritarren bizimodua hobetzea. Guztira 965.000.000 pezeta erabiliko dira inbertsioak egiteko. Aurten egin nahi diren inbertsioen artean honako hauek aipa daitezke:

- Basadi auzoko urbanizazioaren lehen fasea: 40 milioi. (Datozen bi urtetan proiektuarekin jarraituko da, guztira 210 milioiko inbertsioa izango da).
- Kiroldegiko lanak amaitzea: solarium berria, paddel pistak, belar artifizialeko zelaia. 128.500.000 pezeta.
- Irskortasun plana: plan honen bidez zailtasunak dituzten pertsonen herriko eraikin eta instalaziotara hurbiltzea erraztea lortu nahi da. Lau urtetan zehar beteko da plan hau, eta guztira 160 milioiko partida bat izango du. 2000rako 40 milioiko partida onartu da.
- Igogailuak jartzeko plana: etxe partikularretan igogailuak jartzea lagundu nahi da, horretarako 8 milioiko diru kopurua ezarri da.
- Ibaiertzeko ibiltokia: 20 milioi.
- 3. sektorearen urbanizazio lanak: 118.580.000 pezeta.


- Gorostiagako Poligono Industrialeko obrak era urbanizazio lanak: 264.551.000 pezeta.

Beste hainbat inbertsio egiteko partidak ere onartu dira, hala nola, Ubillos, Foronda eta Aita Mari zineko hobetze lanak; Oikia, Artadi eta Narrondon egingo diren lanak; Arrangoletaren eraisketa eta bertan egingo den plazaren eraikuntza, etab. Aipatu behar da, baita ere, diru kopuru bat ere gorde dela, Zumaiako rasa, flysch eta naturarekin zerikusia duten beste hainbat puntu elkartuko dituen proiektu global baterako.

Inbertsioez gain, beste partida batzuk ere agertzen dira aurrekontu hauetan:

- Ongizate Sailaren aurrekontua: 60 milioi inguru.
- Udalbiltza: 1.250.000.
- Jaietarako diru kopurua: %26ko igoera.
- Kirol elkarteentzako diru kopurua: %40ko igoera.
- Euskara sailak Zumaiako soziolinguistikari dagokion lan bat egiteko asmoa ere badu, eta horretarako 2,5 milioi izango dira. Bestetik Zumaiako toponimiaren estudioa amaitzeko 2,8 milioiko partida bat ere onartu da.

◀ JUAN LUIS ROMATET



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



Basadi, 3



**BASUSTA
ERREATEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073

**CORO
PRIETO**
Esteticista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g

Hasi dira Zumaian saneamendu lanak

1999. urte amaieran onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Zumaia dagokion Saneamendu Plan Integrala. Plan horren barne dira Basusta inguruan eraikiko den araztegi edo depuradora eta bertara joango diren ur zikinen kanalizazioa, beste gauza batzuen artean. Datozen hilabete eta urteetan egingo diren lan hauetaz Ubiri, S.A. enpresa arduratuko da, eta Eusko Jaurlaritzak ordainduko du oso-osorik Saneamendu Planari dagozkion lan guztiak. Jada hasiak dira, bai Julio Beobide ibiltokian eta baita Txomin Agirre kaian ere, plan honi dagozkion lehen lanak.

Julio Beobide ibiltokian, Arranplatik hasi eta Karmelo Unanue familiaren etxebizitzak arte egingo dira lanak. Bertan errepidea zulatu eta kanalizazioak egingo dira. Horretarako bide guztian zehar hodiak jarriko dira. Julio Beobideko hodi horiek bat egingo dute Arranpla inguruan Itzurundik etorriko den beste hodi sare batekin. Arranplan batuko diren ur zikinak Txomin Agirre kaian, oinezkoen zubiaren aurrean, lur azpian ezarriko den deposito batera bideratuko dira eta bertatik ibaia zeharkatu ondoren, Gernika Parkean zehar joango dira.

Ur zikinak biltzeko lekuetako bat Txomin Agirre kaia izango da, bertan



batuko baitira, Paolaldekoak, Larretxokoak eta Zumaia Alde Zaharreko ur zikinak. 4-5 metro inguruko sakoneran egokituko den deposito honetatik hince edo lur azpian joango den tunel baten bidez joango dira ur zikinak Itsas Kiroldegi inguruan ezarriko den depositora eta bertatik Basusta inguruko araztegiara. Herriko auzo eta leku batzuetan hince moduan egingo dute lan, hau da, lanak ez dira agerian egingo. Teknologia honi esker lan guztiak lur azpian egingo dira eta ez dituzte bideak zulatu beharko. Deposito handi hori ezartzeko lehen lanak hasi dira oinezkoen zubiaren aurrealdean.

Aurretik ere lan handiak eginak daude Zumaia mailan saneamenduari dagokionez. Jakina denez, bai ur garbia (euri ura) eta baita zikina ere

ibaiara joaten da inongo araztegitik pasa gabe. Goian aipatutako lekuetan, Paolaldean, Larretxo inguruan eta Alde Zaharrean jada bi ur mota horiek hodi ezberdinetatik joaten dira ibaira. Hori dela eta, nahikoa izango da bi hodi horietako bat, ur zikinak dakartzakiena, araztegiaren kanalizazioan sartzea. Beste hodia zuzenean itsasora joango da. Herriko beste hainbat lekutan ez daude eginak lan hauek. Ur horiek ez bereizteagatik herriko auzo batzuetan askoz hodi lodiagoa erabili beharra eragingo du.

Martxoaren lehen asteetan hasi ziren Saneamendu Plan honen lehen lanak. Noiz amaituko diren ez dakigu, baina ziur luze joango dela.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI

Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

**EGUZKI
PUB**

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



Etxe eraisketa

Maria eta Jose ikastetxearen ondoan zegoen Bidabepiko etxea hilabete honen hasieran bota zuten. Jakina denez, etxe hori zegoen lur sailean txalet moduko etxe ugari eraikitzeko asmoa dago. Aldez aurretik ere bagenekien etxe hau eraisteko asmoa zegoela, baina ez genuen espero halako azkar, egun bakarrean, hainbat urtetako etxe bat bertan behera botako zutenik. Gauzak horrela, Zumaia bere historiaren zati handi bat galtzen jarraitzen du, modernitatearen izenean.



Presoen alde zintzilikatuta

Pasa den martxoaren 4ko arratsaldean, Presoen Solidarioak taldeko pare bat lagun zintzilikatu ziren Erribera kalean, presoek eskubideak aldarrikatzeko. Aldizkari hau inprentara eramateko orduan, presoek gose greban jarraitzen dute.



Sutea Zumaian

Apirilaren lehen egunetan sute handia izan zen Ayra Durex enpresa eta Txiki Erdiko bidegurutzearen artean. Dirudenez, norbaitek su eman zien trenbide ondoko sasi batzuei, eta horren ondorioz sutea ondoko txabola batera zabaldu zen eta bertan txakur eta unxi batzuk kiskalita hil ziren. Ondoren, sua, Baiona garajeak gurpilak gordetzeko erabiltzen zuen depositora zabaldu zen eta bertan ehundaka gurpil erre ziren. Sutearen ondorioz ke beltz ugari izan zen eta beldurra eragin zuen. Sua itzaltzeko lanetan inguruko suhiltzaileak aritu ziren gau guztian zehar, eta horretarako Ertzaintza eta Zumaia Udaltzaingoa laguntza ere izan zuten.

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 25 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía



Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777



Kontraesanez jositako epaiketa

*Zazpi urte pasa dira Xabier Kalparsoro "Txato" zumaia-
gaztea Indautxuko komisa-
degiko leihotik erori eta hil
zela. Apirileko lehen astean,
komisaldegian Xabi zaintzen
zuten lau polizien aurkako
epaiketa egin da, "zuhurtasun
gabezia arriskutsua"-ren
akusaziopean.*

Epaiketa honetan hiru akusazio parti-
kular egon dira: familiaren izenean
Jone Goirizelaia abokatua izan da, eta
berekin batera Torturaren Aurkako
Taldearen eta Zumaiaiko Udalaren
abokatuak ere izan dira epaiketan
akusazio moduan. Horien ustez, auzia
"itxuraz bakarrik" itxi da "epaiketa
honetan ezin izan baitira argitu Xabier
Kalparsororen heriotzaren nondik
norakoak". Dena den, Goirizelaiaren
ustez "argi geratu da akusatutako lau
polizien aldetik zuhurtasun gabezia
larria egon zela".

Kontraesan ugari polizia eta udaltzainen artean

Epaiketak iraun zituen hiru egunetan
bertsioen arteko kontraesanak izan
ziren nagusi. Epaiketa honetan Indau-
txuko poliziek, Durangoko udaltzainek
eta hainbat perituk deklaratu zuten.
Gogoratu "Txato" Durangoko
udaltzainek atxilotu zutela, ustez
lapur bat zelakoan, eta ondoren
atxilotua Poliziaren esku geratu zela.
Epaiketan poliziek ez zituzten akusa-
zioaren galderak erantzun nahi izan,
baina azaldu zuten Xabiri emandako
tratua bikaina izan zen, ez zuten
esposatu eta zerbeza eta ura ere eman
omen zioten. Leihotik erori zenean
zaintzen zuen poliziak esan zuenez



"bat-batean lurrera bota ninduen.
Oreka berreskuratu nuenean, leiho
ondoan zegoen eta ni jaiki orduko
salto egina zuen". Hori egin ahal
izateko itxita zegoen leihoa zabaltu
behar izan zuen "Txatok" baina
leihoan ez zen inongo hatz-markarik
aurkitu. Poliziek esandakoaren
arabera Xabier "oso lasai zegoen" eta
erabat harritu omen zituen bere
jokabideak.

Durangoko udaltzainek esandakoa oso
bestelakoa izan zen. Horien esanetan,
"Anuk" denda bat lapurtzera zihoan
drogazaletzat hartu zuten, bere jarrera
"normala" ez zelako. "Zentzurik ez
zuten gauzak esaten zituen. Oso
urduri zegoen. Ez zegoen ondo,
balantza egiten zuen eta zezelka hitz
egin". Polizia espainolek esan zuten
beraiek "ez zuten horren guztiaren
berri" nahiz eta udaltzainek horren
guztiaren berri zekarren atxilotetaren
txostena eman zieten atxilotuarekin
batera.

Perituen txanda

Epaiketaren bigarren egunean
perituen txanda iritsi zen. Horien
ustez, Xabierrek ez zuen ez jauzi egin,
ez abiadarik hartu Indautxuko
komisaldegiko bigarren solairuko
artxibategian zegoen leihotik erori
aurretik. Bizkaiko Lurralde Entzu-
tegiko forentseen mediku taldeko
buru Rafael Alcarazen ustez
"belauniko egongo zen leihoan, eskuak
bertako barlasaian jarrita zituela".

Ondoren "harria bezala" erori zela
ondorioztatu zuen. Horrez gain, jatorri
ezezaguneko marka batzuk zeuzkan
hanketan eta CPK analisiaren
emaitzak ere oso altuak izan ziren
(845ekoa zuen, normala 70 denean).
CPK giharretan eragiten duen
elementua da, eta presio handi baten
menpe egotean sortzen den gihar-
haustura neurtzen du. Poliziaren
perituek ere bat egin zuten leihotik
erortzeko abiada ez zuela hartu esate-
rakoan.

Kalparsororen egoeraz ere mintzatu
ziren. Durangoko udaltzaingoaren
komisaldegian azterketa egin zion
mediku forentseak esan zuenez, Xabik
"hordituta ematen zuen, ez zegoen
seguru hanka gainean eta gehiegizko
urduritasuna atzeman nion". Gorpuari
autopsia egin zioten mediku-foren-
tseak bat etorri ziren akusatzaileen
tesiekin eta Kalparsorok "alkohol asko
edo nahiko" hartuta egon behar zuela
nabarmendu zuten. Gogoratu Xabik
berak idatzitako gutunean polizia
atzetik zuela eta nolabaiteko droga
eman ziotela esaten zuela.

Azken ondorioak

Akusazio lana egin duten hiru
abokatuen ustez "ez da posible
Durangon Kalparsorori hordituta
zegoela antzeman bazioten eta leihotik
erori ostean Basurtuko ospitalean
egindako analitikak alkohol tasa
handia zeukala eman bazuen,
Indautxun egon zen tartean horrela-

korik ez nabaritzea". Akusazio partikularreko ordezkarien esanetan, "argi dago poliziek ez zituztela neurriak hartu atxilotutakoaren osotasun fisikoa bermatzeko, eta Poliziak emandako bertsioan hutsune nabarmenak daudela ere bai". Horregatik guztiagatik 6 urteko kartzela zigorra, 6 urteko inhabilitazioa eta 25 milioi

pezetako kalte-ordainak eskatu dituzte lau akusatuentzat.

Fiskaltzak, bere aldetik, akusatuentzat absoluzioa eskatu zuen "epaiketa hasi aurretik ez zelako kriminaltasun zentzurik sumatzen eta egoera berean amaitu delako".

◀ **Josu WALIÑO**



HERRIA EPAILE

Ia zazpi urte joan zaizkigu Xabi hil zutenetik eta, oraindik ere, egun haietan Xabik zer nolakoak jasan ote zituen pentsatze hutsak ikara sortzen du. Lehertu egin zuten.

Bertsio ofizial-polizialak dioenez ordea, Xabik bere kabuz bigarren solairuko leihotik salto egin zuen. Eta hori gutxi balitz komisaldegian eskuburdinik gabe, aulkian lasai eserita eta zerbezatzeko bat edanaz zegoela sinestarazi nahi digute. Barruak behar dira pertsona bat lehertu eta gero horrelakoak esateko.

Zoritxarrez komisaldegietako "estiloari" buruzko esperientzia latza bezain luzea daukagu Euskal Herrian. Nork sinesten ote du bertsio ofiziala? Egongo ote da norbait Xabik bere kabuz eta inolako presiorik gabe leihotik salto egin zuela pentsatzen duenik? (Hala bada bejondeiola, ez du betaurreko beharrik, era horretako itsukeriak ez baitu dioptriekin zerikusirik).

Epaitegiek ordea, Ofizialak izaki, bertsio ofizial-polizialean baino ez dute sinesten; Xabik leihotik salto egin zuen, Gurutze bihotzekoak jota hil zen, Joseba Arregi ere bai... Gero estatuak "demokrazia" markako trajea jantzi, irribarre itxuratu eta torturarik ez dagoela, eskubideen estatuan bizi garela eta dena ondo doala errepi-katzen digu etengabe irrati telebistan.

Epaitegiek estatuaren interesak babestuz bertsio ofizialak baino onartzen ez dituzten bitartean ezer gutxi argitzea espero genezake. Argia, egia, herritarren artean geratu da oraingoz, eta inoiz Herria Epaille bada orduan bai, orduan ardurak argitzeko aukera izan dezakegu.

IMANOL GARATE. "TXATO"REN LEHENGUSUA

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

expert
ELEKTROGAILUAK



MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 861078

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81



Amaiako plaza z/g Tel. 860959

Maite Golmaio:

"Anonimo batzuk jaso genituelako jarri ahal izan da epaiketa martxan"

Maite Golmaioak zazpi urteko bide luzea egin behar izan du epaiketa honetara iristeko. Lau poliziak akusatuen aulkian ikusita gustura dagoela dio, eta bertan entzundakoak bere usteak sendotu egin dituela.

B Epaietako egun hauek duela zazpi urte gertatutakoa berrituko zizun.

Nola bizi izan zenuen hura guztia?

Seme bat galtzeak uzten dizun hutsunea barru-barrukoa da. Gainera neurea tratatu zuten bezala tratatu zuten, banekien asko pasa behar izan zuela, eta gero bere burua bota balu bezala aurkeztu zuten, bere gainera zikinkeria bota nahian. Oso latzak izan ziren niretzat egun haiek.

B Nolako izan da epaiketa honetara iristeko bidea?

Zaila. Alderdi ilun asko daude, baditugu susmoak, baina informazioa daukatenak mugitu arte, poliziak berak edota informazioa badutela dakigun alderdi politiko batzuk, guk ez dugu ezer frogatzeko modu handirik.

Oraingo epaiketa hau ere duela bi hilabete bertan zeuden polizien eta faltsutu ziren dokumentu batzuen berri eman ziguten anonimo batzuk jaso genituelako lortu dugu mugitzea. Bitartean ezer ere ez, tortura eta erailketa akusazioa eta egun batzuk lehenago izan zuen beste detentzioa argitzeko epaiketa ere erabat geldituta daude, frogarik ez dagoelako.

Oztopoak eta tapatu nahiak besterik ez dugu aurkitu, hamaika ahalegin egin ditugu, baina ezin ezer lortu, eta

horrek guztiak kriston inpotentzia sortzen dizu.

Beste aldetik, ordea, semeak indar handia ematen dit. Badaukat kaset bat bere bertso batzuekin... oso bertso txarrak dira, baina momentu bajuak pasa ditudanean huraxe jarri eta animatu egiten naiz. Epaietaren bezperan ere ezin nuen lorik hartu, eta bertsoak jarri, zumo bat preparatu eta horrelaxe pasatu nuen.

Gero badago laguntzen dizun jendea ere, animo bat ematen dizuna, eta horrek asko balio du. Nire semearen lagunak nire lagun egin dira urte hauetan, jende bat beti hor egon da, presoen senide batzuekin oso harreman ederra sortu zait... Sorpresak ere bai tartean. Epaietan, adibidez, Rikardo Peña azaldu eta animo batzuk eman zizkigun, eta detailea iruditu zitzaidan.

B Ze inpresio egin dizu epaietarak?

Ze inpresio... ez dakit ba nola esan. Alde batetik, azken urteotan nire helburu nagusia polizia horiek akusatuen eserlekuan ikustea zen, eta hori lortu dut. Iruditzen zait oraindik ere inpunitate osoarekin dabilzala eta oso harroputz azaldu dira, beren harropuzkeriarekin, neu behintzat, lotsatze-raino, baina hor eseri beharra bada zerbait; niretzat asko.

Beste alde batetik, epaietan ikusi dudanak neure konbikzioak indartu egin dizkit. Beren abokatuak ez die galderarik egin elkarren artean kontrae-sanetan eror ez zitezen, baina gure abokatuak eginiko galderekin kontrae-sanak agerian gelditu dira... gezurretan ari dira, egia esaten denean ez baita hain konplikatu eta iluna suertatzen.

B Ze esperantzarekin irten zara bertatik?


Instituzio espainolek gaur arte eman diguten tratua jasan ondoren ez daukat inongo konfiantzarik. Hala ere, egia esango dizut, sartu baina esperantza gehixeagorekin irten naiz. Abokatuak ere epaietan ikusitakoaren ondoren, aukerak badaudela diote. Zaila da, baina inoiz ezin da seguru jakin zer gertatuko den.

B Ze eskatuko zenieke epaileei?

Ezer ere ez. Justizia egiteko daude eta euren jakingo dute zer egiten duten. Garrantzitsuagoa iruditzen zait horrelakorik gehiago gerta ez dadin, hurrengo belaunaldiak horrela sufritu behar izan ez dezaten, gizarteari mugitzeko, lana egiteko eskatzea. Nire amak beraiek Francorekin pasatakoa berriro nire semeak pasa behar izan zuela ikusten zuen, eta ezin zuen jasan. Denon artean lan egin behar dugu berriro gerta ez daitezen.

B Epia entzun eta gero zer?

Honaino iritsi gara eta aurrera jarraitu beharko dugu. Lagun batek esan zidan bezala, Berlingo harresia erori bazen eroriko dira besteak ere. Gainera zailena pasata dagoela iruditzen zait, mina denborarekin pixka bat baretzen joaten baita. ◀ **ANTXOKA AGIRRE**



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

Santelmoak 2000



Urtero bezala, heldu da Santelmoen txanda. Lan eta familia arazoak alde batera utzi eta festa giroaz gozatzeko aukera. Aurtengoa, gainera, milenio berriko lehen Santelmoak izango dira, edo hala diote, eta nik galdetzen dut, zerikusirik izango al dute Internetak, ziberespazioak eta martzianoek festa hauetan? Galdera hauen erantzuna datozen asteotan izango dugu. Badaezpada ere, Udaleko Kultur eta Festa Batzordeak festa hauetarako programa egin du. Zuen esku geratzen da ekitaldi hauetara joatea ala ez, baina behintzat ez kexatu ezer ez dagoela eta. Ale, ondo pasa Santelmoak!

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

BALEIKE

2000ko apirila, 67. zenb.

egitaraua



Apirilak 28, ostirala

- Egun osoan, Beheko Plazan eta Odietan, **Haur Parkea**.
- 18.30etan, Aita Marin, **Haur Abesbatzen topaketa**: San Pedro Txiki eta Txikienak eta Zumarragako Goizargi Txiki eta Txikitxoak.
- 22.30etan, Aita Marin, **Bertso saioa**: Andoni Egaña, Xabier Amuriza, Jon Maia, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Juan Mari Irazu. Aurkezlea Arritxu Iribar.

Apirilak 29, larunbata



- 10etan, Itzurun hondartzan, **I. Surf eta Paipo Txapelketa**.
- 12etan, Telmo izenekoan meza eta anaiarteko bazkaria.
- 12etan, San Telmon **txupinazoa**, Musika Eskolako trikitilariak alaituta. Jeitsieran, Aita Mari elkarteak eskainita salda eta **Bertso Eskolako ikasleen saioa**.
- 12etan, **Abesbatza Zaharren Topaketa**: Bergarako San Joxepe, Ondarroako Antiguako Ama, Legazpiko Buztintegi eta Zumaiaiko Beheko Plaza abesbatzak.
- 14.30etan Erribera kalean, **Bazkari Herrikoia**. Eguraldi txarra eginez gero, Goiko Plazan. Jarraian, Koadrila gazteen arteko Herri Kirolak.
- 19etan, **kalegiroa**, musika kalejirak,...
- 22etan, Odietan, **Xixtera partiduak**. XI. San Telmo sariaren barne final•erdiak.
- 23etan, Beheko Plazan **dantzaldia** Basajaun taldearekin.
- 23etan, Kiroldegian, **Gazte Gaua** (14 urtetik gora!)



Apirilak 30, igandea

- 8etan, **Goiz Soinua** txistulariekin.
- 8.30etan, **zezenak** Itzurun hondartzan.
- 11.30etan Arbustain Elkarateak (Kutxak babestuta) antolatuta, **Hamai-ketakoa herriko itsasgizon zaharrentzat**.
- 12etan, **Haur Tanborrada**.
- 17etan, **Buruhaundi eta Erraldoiak** herriko txistulariekin.
- 18etan, **Haur Festa** Beheko Plazan.
- 18.30etan, Kofradian, Zumaiaiko AEK-k antolatuta **Talojana eta herriko trikitilarien saioa**.
- 19etan, **txaranga** doinuak kalejiran.
- 22.30etan, **Tanborrada nagusia**.
- 1etan, Beheko Plazan, Laiotz taldearen **dantzaldia**.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabiloi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908-143409



Santelmoak

Maiatzak 1, San Telmo eguna

- 8etan, **Meza** eta ondoren **Jaunarekin Prozesioa** eta Gaisoen Jaunartzea.
- 10.15etan, **Ohiturazko Prozesioa**.
- 10.30etan, **Meza Nagusia**, itsasoa bedeinkatu, etab.
- 12.30etan, Azpeitiko Dantza taldearen eskutik **Euskal Dantza saioa**.
- 17etan, **Eskuzko Pilota Partidu profesiona**l: Goñi II-Berna/Olaizola II-Zezeaga.
- 19etan, **Kale Antzerkia** Erribera kalean
- 19.30etatik 21etara eta 23etatik 1etara, Kofradian, Muxutruk taldearekin **dantzaldia**.



Maiatzak 2, asteartea

- 8etan, **Hildakoen meza**.
- 10.30etatik aurrera, Kiroldegian, **Haur Parke Berezia** - Uretako jokuak.



Maiatzak 5, ostirala

- 22.30etan, Odietan, **Pelota Partidu Profesionalak** pala eta xixteraz.
- 23etan, Txosnen inguruan, **Rock kontzertua**, Dut taldearekin.

Maiatzak 6, larunbata

- 11etan, Larretxoko plazatxoan, **Haur Jokoak**.
- 12etan, Beheko Plazan, **II Olarruzopa Lehiaketa**.
- 12etan, Itzurunen, Hondartzako **XV. Futbol Txapelketaren** barne, azken partiduak.
- 17etan, Beheko Plazan, **Haur Festa**.
- 19etan, Aita Marin, **Zumaiako II. Kantu Txapelketa**.
- 22etan, XI. San Telmo saria Odietan, **Xixtera txapelketako** azken partiduak.
- 23etan, Beheko Plazan, **Bizargorri taldea**.



Maiatzak 7, igandea

- 12etan, plazan (eguraldi txarra eginez gero Odietan) **Urrezko Aizkora txapelketaren finalerdiak** (ETB-k zuzenean).
- 18etan, **trainerillak** - San Telmo XVIII. Saria.
- 19.30etatik 21etara eta 23etatik 1etara, Kofradian Leiho taldearekin **dantzaldia**.



GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

- denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua


Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

BALEIKE

2000ko apirila, 67. zenb.

Santelmoak

gazte gaua



tailerra, Henna tatuaiia tailerra, magoak, etab. Joko ugari ere aurkituko dituzte gazteek Lubakin: mahai jokoak, futbolina, ping-ponga... Jakina denez, festa giroan beti garrantzi handia du musika eta dantzak, eta horretarako, gaztetxoek dantza egin dezaten, diskoteka saio bat ere eratu dute antolatzaileek Gazte Gauaren barne.

Zumaian lehen aldia izango da halako jai bat antolatzen dela herriko festen barne. Ea herriko gaztetxoek nolako harrera egiten dioten.

Gaieran ditugun San Telmo festa hauek berrikuntza bat izango dute aurreko urteetako festekin alderatuz. Berrikuntza hori Lubaki kiroldegian ospatuko den Gazte Gaur izango da. Gazte Gaur delako festa ez-ohiko hau Zumaia Udaletxean bultzatutako ekimena da. Hala ere, festa alternatibo honen antolatzaileak erakunde pribatu bateko kideak izango dira, Ostargi Gizarte Elkarteko hezitzaileak, hain zuzen ere.

Ostargi Gizarte Elkartea gazte eta haurren garapen integralaz arduratzen den irabazi asmorik gabeko elkartea da. Duela urte batzuetatik, elkarre horretako hezitzaileak ingurune ireki batetik gazteen prebentzio eta gizarteratze proiektuak garatzen ari dira Gipuzkoako zenbait udalerrian: Astigarragan, Zarautzen, Tolosan eta Zumaian.

Gazte Gaur delako festa datorren apirilaren 29an ospatuko da Lubaki kiroldegian eta San Telmo festen barne. Hasiera batean hiru orduko festa izango da, gaueko 11etan hasi eta goizaldeko 2etan amaituko da. Ekintza hau 14 urtetik 17 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, nahiz eta pertsona helduagoek ere parte hartzeko aukera izango duten. Festa honen helburu orokorrak hauek dira: bizi ohitura osasuntsuak bultzatzea, gazteen elkartzea bultzatzea, udalerrien baliapenen probetxamendua hobetzea, ez ohiko jai giro alternatiboak izatea eta, azkenik, gazteak ekintzaren garapenean inplikatzeko, beren aisialdiaren autogestioa bultzatuz.

Gazte Gau honen antolakuntzan, ahalik eta zumaia koadrila eta gazte gehieneko parte-hartzea bultzatuko da Ostargi Gizarte Elkartearen esanetan.

Esan bezala festa hau 14tik 17 urte bitarteko gazteentzat da egokia, nahiz eta kiroldegiko ateak jende guztientzat irekita egon. Jaialdi honetan tailer ezberdinak aurkitu ahal izango dituzte bertara joaten direnek, hala nola, DJ

Erribera kalea Tel. 861523

San Telmo, 12
Tel. 860760

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

El silencio de los...

Nire azken biktimaren izterrak errezetak agindutako urre kolorea hartzen ari zirelarik eta, Mozarten musika lagun, itxaronaldia pozteko zintzurra krian-tzako beltz bikain batekin bustitzen ari nintzelarik, bat-batean gogoratu nintzen Zumaiako Aita Mari zinean Tim Burton-en film zoragarri bat eman behar zutela, "Sleepy Hollow" izenburua zuena. Berriarekin aztoraturik, labea itzali, edalontzia hustu eta aipatutako zineko txarteldegira abiatu nintzen, tximista bezain bizkor.



Hannibal Canibala

Nire akitutako gorputzari Mozartek eta krianztako ardoak oparitu zioten baretasuna dastatzen ari nintzen eta baita eskuak igurtzitzen ere pantailan desfilatu behar zutenen zain, zurrumurru eta kirriz-karraz moduko batzuk sumatzen hasi nintzenean. Argiak itzali bezain pronto, zurrumurruak eta kirriz-karrazak Valkirien kantu eta inpernuko trumoi bilakatu ziren. Filmaren lehen izenburuetan Burtonen izena azaltzerako, apokalipsia zekarren ekaitza kezkarri bihurtu zen. Begirada altxatu eta nire inguruan formarik gabeko hainbat izaki antzeman nituen, plastiko suntsitzailezko poltsa izuuugarri handi batzuetan gordetzen zuten pentsua mauka-mauka irensten.

Nire ondoko bikote bat filma ahots ozenez komentatzen hasi zen. Hiru ilara atzerago mutil koskor bat –haren ahots xaloak halakoa zela salatzen baitzuen– bere irudimenari ateak ireki eta koadrillakoei emanaldia alaitzen hasi zen txiste-kontari, filmean eta (eta nire subkontzientean ere bai) buruak moztu eta hegan hasten ziren bitartean.

Ikuskizun dantesko haren aurrean, kemenez bete eta hamar arte zenbatu nuen, baina palomita eta hondorik gabeko poltsen ekaitza ez zen baretu. Zarata hain zen burrunbatsua, non lehenbiziko hamabost minutuetan filma azpitulatua ez egotea pena hartu bainuen.

Kirriz-karraz, miazkatze, musu eta komentarioen festa lasaitu zenerako, filma jada erdialdera iritsia zen.

Eskuak oraindik ere dardarka, berriz ere Mozart, krianza eta gorritutako izterrarekin egin nuen topo eta zin egin nion neure buruari labea hurrena sartuko nuen jakiak gusanito eta Risi pataten gustu pixka bat izango zuela.



Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373



Amaiako plaza, 13 Tel. 860758



Urumea, 6 Tel. 862083



Lehen Mailan debuta egin eta denboraldia hirugarren postua amaitzea ez da nolanahikoa balentria. Azken jardunaldiaren faltan, Pulpo laugarren postuan da sailkapenean, ITE Hondarribiarekin 30 puntura berdindurik. Zumaiarrek Trapagaranen jokatu dute azken partidua, larunbatean, eta Hondarribiakoek Burgosen, Igandean. Zumaiarrek euren partidua irabazten badute hirugarren postua eskuratzeko aukera handiak dituzte, Burgosen irabaztea ia ezinezkoa izango baitzaio ITERi. Aurretik Arrate eta Burgos indartsuak bakarrik izatea ametsa zen denboraldi hasieran, baina orain eskura dute.

Nolanahi ere, eta azken jardunaldian gertatzen dela gertatuta, Lehen Mailako taldeak denboraldi zoragarria egin duela azpimarratu behar da. Talde guztien aurka lortu dute gutxienik puntu bat, eta jarraitzaileei ez zaie luzaroan ahaztuko Lubaki kiroldegian Arrateren aurka lortutako garaipen itzela. Gero, denboraldian zehar, une makalak izan dituzte, batik

bat lesioek eragindakoak, baina beti erakutsi dute edonori irabazteko kapaz direla. Talde honek iaz Euskadiko Txapelketarekin hasitako zikloari amaiera bikaina eman dio. Orain ikusi beharko da datorren urterako plantila ze punturako aldatzen den. Espero dezagun orduan diru aldetik aurten baino lasaiago ibiltzea.

Etxeko azken partiduan irabazi

Joan den larunbatean jokatu zuten etxeko azken partidua, Huescaren aurka. Zumaiarrek 28-26 irabazi zuten, partidua uneoro kontrolpean izan eta gero. Partidu hasiera nahikoa orekatua izan zen, baina atsedenaldira lau goleko errenta eraman zuten Juanma Txintxillaren jokalariek. Aragoiko defentsak buruz-burukoa egin zion Asier Agirreri, eta Jokin Esnalek etekin bikaina atera zion egoera horri, guztira 12 gol eginez. Bigarren zatian Aragoiako ohartu ziren defentsan utzitako zuloaz eta buruz-burukoa egin zioten Esnali ere. Baina ordurako

Pulpok hirugarren amai dezake

*Denboraldiko azken partidua
Trapagaranen aurka
jokatuko du Lehen Mailako
eskubaloit taldeak*

beranduegi zen. Pulpok ongi eutsi zion lehen zatian lortutako aldeari, eta azkenean bi goleko aldeaz lortu zuen garaipena. Hauek aritu ziren Pulpon: Manterola, Beristain, Gutierrez (1), Agirre (7), Sorazu (3), Eizagirre (1), Zubimendi, Etxeberria, Aizpurua (1), Urbieto, Esnal (12), Telleria (3).

◀ GORKA ZABALETA

Neskak eta gazteak ere ezinhobeto

Pulpo urte zoragarria ari da osatzen, maila guztietan lehen postuetan amaitu baitute denboraldia. Emakumezkoek Euskadiko Bigarren Mailako txapelketa irabazi dute, nagusitasun osoz, eta jubenilek eta kadeteek lehen postua lortu dute Euskadiko Txapelketako sailkapen bateratuan. Jubenilak bigarren izan dira, eta kadeteak laugarren. Jubenilek orain Zaragozara doaz, Espainiako Txapelketa jokatzera.



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081

- Arrainak eta haragiak
aukeran

- Eguneako menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853

Zumaiako igoeraren bezperan

Zumaiakoren lehen Erregionaleko taldea inoiz baino hurbilago dago bere mailatik salto egin eta Preferenterako igoera lortzeko. Denboraldia amaitzeko lau partidu eskas geratzen direla, zumaiarrek lau puntuko aldea ateratzen diete beren betiko etsaiak izan diren zarautzarrei. Hala ere, bada urduritzen hasteko momentua, azken partiduetan zumaiarrek erakutsi duten jokoa nahiko eskasa izan baita, Espero dezagun urduritasunak ez duela pikutara bidaliko denboraldi guztian egindako lan ederra.

Esan bezala, aldizkaria ateratzeko orduan lau partidu besterik ez zaizkio geratuko Zumaiakori. Lau partidu: hamabi puntu. Hamabi puntu jokoan eta lauko abantaila Zarautz taldearekiko. Orain gutxi arte zumaiarrek erakutsitako joko ona mantenduko balute, esan genezake lau puntuko tarte hori nahikoa izango litzatekeela hurrengo mailarako igoera lortzeko. Baina, Zumaiakok egindako azken partiduak nahiko tamalgarriak izan dira, bai joko aldetik eta baita ere emaitzen aldetik. Jokoari dagokionez, Zumaiakok orain gutxi arte oso partidu onak egiten zituen. Gogor defentsan (bere mailan gol gutxien jaso duen taldea da) eta kontraerasoan azkar ateratzen. Ez da izan Zumaiako gol asko sartu izan dituen taldea, baina bai behar den momentuan aurkako taldearen atea zulatu duena. Azken partiduetan joko aldetik oso urduri ikusten dira



zumaiarrek. Igoera lortzearen erresponsabilitatea ote? Emaizten aldetik begiratuta, azken partiduetan irregulartasuna handia erakutsi dute Oscar Castrok gidatutako mutilek: banakako berdinketa etxean Ilintzarekin, denboraldiko bigarren porrota Elgoibarren, etab. Orain arte Zumaiakok jokatu duen azken partiduan, Aita Mari futbol zelaian jokaturako Sorluzeren aurkako partiduan, zumaiarrek garaipena lortu zuten 1-0 emaitzarekin, baina asko sufritu ondoren eta

90 minutuetan zehar joko eskasa egin ondoren.

Datozen partiduek berebiziko garrantzia dute Zumaiakorentzat. Igoera lortzeko behar-beharrezkoa da taldeak behera ez egitea eta denboraldi guztian erakutsi duen indarra orain mantentzea. Denboraldi amaiera honek badu gauza on bat, Zumaiakok bere esku duela igoeraren giltza eta ez duela beste taldeek lortzen dituzten emaitzen zain egon behar. Ea oraingoan igoera lortzen duten. ◀

Plairotako azken partiduak

Amaitzekotan dago Itzurungo hondartzan jokatzeko ari den plairotako txapelketa. Aldizkari hau kalera aterako den asteburu honetan Liga eta Kopako final-erdiak jokatu dira, finalak datorren maiatzaren 6an jokatu direlarik. Final-erdietan honako neurketak jokatu dira. Ligari dagokionez, Ederki-No Solution

eta Trapaia Oskarbi edo Kalariren aurka. Kopako txapelketan jokatu diren partiduak Txixapa-Txixixa eta Ipurbeltz-Inpernupe izango dira. Neurketa hauetatik ateratzen diren talde irabazleek jokatu dituzte txapelketako finalak.

◀ JUAN LUIS ROMATET




Erribera kalea, 20



BALEIKE

2000ko apirila. 67. zenb.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

Bertso plaza

Baleike aldizkariak orrialdetxo bat eskaini digu hilerro, zumaierro guk nahi duguna eman ahal izateko. Eta ez dugu nahi albora utzi aukera polit hau, nola bada? Hemendik aurrera hemen gaituzue beraz hilerro gure bertso kontuekin.

Zumaiako bertso mundu apala, lehengoa eta oraingoa, ikus ahal izango duzue leihotxo honetan. Gure herriarekin zerikusia duten bertso zaharrak direla, gaur eskuartearen darabizkigun asmoen berriak direla,

Uztapide eta Basarri Zumaiar, Odieta pilotalekuan 1950 urte inguruan. Argazkian daude besteak beste: Eugenio Arrizabalaga, Joxe Mari Alberdi, Joxe Sasiain "Artia", Jose Ramon Zubia, Tomas Etxabe "Bitarte", eta eskuinean "Xuasti"



aleka-aleka zertxobait janari ematen saiatuko gatzazkizue zuen zaletasuna indartzeko asmoz.

Orain zertan gabiltzan? Bada, Santelmotako bertso saio nagusia prestatzen. Aspaldiko urteotan egin ohi dugun moduan, bertsozaleok hortxe izango dugu Santelmo aurreko ostiral gauean urteko jaialdi nagusia. Programa-orrietan ikusiko dituzue xehetasunak. Hortaz aparte, bailarako bertsolari gazteei kanta dezaten aukerak zabalduz, bost bertso afari antolatu ditugu herriko elkarteetan; Anaden egin genuen lehenbizikoa eta Txepetxan izango dugu bigarrena apirilaren 14an. Gero gerokoak.

Umeen Eskolarteko bertso txapelketak aurten hogeigarren urtea betetzen du. Zenbat zumaier gaztetxok hartu duzue parte joan deneko 20 urte hauetako txapelketetan, nahiz idatziz nahiz bat-bateko saioetan! Zenbat oroitzapen Donostiako Karmelo Balda pilotalekuko saioetakoak edo ondorengo bazkari eta eskurtsioetakoak! Aurten ere ez dute huts egingo gure eskolako umeek, ez horixe! Emango dizuegu honen berri gehiago ondorengo aleetan.

Eta bertsorik ez da faltako noski ataltxo honetan, horixe baita gure izatearen funtsa; kontu gutxiago eta bertso gehiago.

Eta azkenik esan nahi dizuegu leihotxo hau irekita egongo dela zuentzat guztiontzat, nahi duzuen berri eman, bertso bidali edo proposamen egin, atsegin haundiz jaso eta plazaratzen saiatuko gara.

Eskerrik asko Baleikekideoi eskura jarri diguzuen talaia eder honengatik.



ZUMAIKO BERTSO ESKOLA

Kresala
— edergintza —
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

KUKUTZ
serigrafia
*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



AIZPURUA

LIBRERÍA
R U D E N D A

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

apirila

IKASTAROAK

Altzarien Berritzea. Apirilean hasita, 40 orduko ikastaroa.

HAUR ANTZERKIA

"Elmer Elefantea" txotxongiloak

► Apirilak 16, igandea, eguerdiko 12etan
Aita Mari zinean

UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

► Airilak 16, igandea, eguerdiko ordu 1ean.

ZINE FORUM SAIOA

David Linch-en "El hombre elefante" kopia berritua

► Apirilak 19, osteguna, gaueko 10.15etan

Aita Mari zinean

ZINE FORUM SAIOA

Win Wenders-en "Buena Vista Social Club"

► Apirilak 27, osteguna, gaueko 10.15etan
Aita Mari zinean

SAN TELMOTAKO II. KANTU LEHIAKETA

► Maiatzak 6, larunbata, arratsaldeko 7etan

Aita Mari zinean

ZINE FORUM SAIOA

Jim Jarmusch-en "Ghost dog"

► Maiatzak 11, osteguna, gaueko 10.15etan

Aita Mari zinean

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00
Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19.30



ALKARREKI ERAIK DEZAGÜN XIBEROKO BOTZA !

Izen - deitura

Helbidea

Herrialdea

- ☐ 1000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoako Botzari
- ☐ 2000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoako Botzari
- ☐ 5000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoako Botzari
- ☐ pezetako laguntza bat ematen diogu Xiberoako Botzari

Gure kontu korrentearen ezaugarriak : Kutxa

2101 0045 91 001092747.3

Xiberoak eraik beza botza - P.K 7 - 64 130 MAULE

ZINE FORUM


Hiru zine forum saio ikusteko aukera izango dugu hilabete eskas batean Aita Mari zinean. Lehena, Aste Santua ospatzen dela eta, **apirilaren 19**rako programatu den zine forum saio berezia izango da. Bertan David Lynch zuzendariaren lehen maisu lana ikusteko aukera izango da: 1980ko *El hombre elefante*. Filma honek XIX. mendeko Ingalaterran bizi izan zen pertsona baten bizitza kontatzen digu. Pertsona honek, John Merrick delakoak, izugarritzko deformidadeak zituen gorputz guztian, eta hori zela eta, elefante gizona deitu zioten. Lynch-ek, Merrick bizi izan zen garaiko jendeak ez bezala, maitasunez begiratzen dio Merricki, horretarako Anthony Hopkins bezalako aktore bikain baten laguntza duelarik. Maisu lan honen kopia berritua eskainiko da apirilaren 19ko saioan.

Apirilaren 27an Wim Wendersen *Buena Vista Social Club* filma eskainiko dute Ostarrenakoek. Compay Segundo, Ibrahim Ferrer, Ruben Gonzalez eta beste hainbat musikari zaharrek grabatu zuten filmaren izen bereko diskoari omenaldia egiteko asmoarekin, Wenders Kubara joan zen musikari horiei buruzko dokumental bat egiteko asmoz. Musikari horiekin egindako elkarrizketez gain, Kubako errealitatea filmatu zuen Wendersek bere kamararekin, eta baita Amsterdam, New York eta beste leku batzuetan egindako emanaldi batzuk ere. Filma honetan musika ederrak, Kubako irudiek eta bizitza honetan dena ikusi duten zahar batzuen esperientziek dute lekua. Emaizta benetan bikaina lortu zuen Wendersek.

Maiatzaren 11an, zine modernoaren maisuetako baten txanda izango da. Jim Jarmusch zuzendariaren txanda, hain zuzen ere. Oraingoan *Ghost dog* bere azken lana ikusteko aukera izango da. Samurari baten arauak betetzen dituen hiltzaile beltz baten bizimodua kontatzen du film honetan Jarmuschek. Gaiak nahiko serioa badirudi ere, umorea eta rap musikarentzako txanda ere badago filma honetan. Goza dezazuela.

IDAZLEA: **Caroline Alexander**

Atrapados en el hielo



"Atrapados en el hielo" liburuak, 1910eko hamarkadan Shackleton izeneko irlandar jatorriko abenturazale batek antolatutako espedizio baten gorabeherak kontatzen dizkigu. Horretarako Caroline Alexander idazleak espedizioan parte hartu zuten lagun batzuek idatzitako liburuak eta bidai hartako argazkilariak ateratako irudiak erabili ditu.

Mende haserako abenturazale haiek bizitakoa benetan izugarria izan zen. Beraien asmoa Ingalaterratik Antartidara itsasontziz joatea zen. Gero Antartida guztia oinez zeharkatu ondoren, lurraldearen beste aldean itsasuntzira berriro igo eta Ingalaterrara bueltatzea. Antartida ingurura hurbildu arte dena ondo joan zen, baina lurretik kilometro eskasetara zeudela, itsasontzia izotzetan harrapatuta geratu zen. Hilabete batzuk egoe-ra horretan egon ondoren, itsasontzia ondora joan zen. Espedizioko kideak izotz koskor baten gainean bizi izan ziren hilabete dezentetan, eta bertara heltzen ziren foka eta pinguinoak jan behar izan zituzten. Hala ere abenturazale hauek ez ziren beldurtu eta behin eta berriro saiatu ziren lurrera iristen. Azkenean lortu zuten beraien jaioterrira. Liburu honek duen onena, dudarik gabe, espedizioan egin ziren argazkiak dira. Itsasontzia izotzetan harrapatuta azaltzen dutenak benetan izugarriak dira, eta zer esanik ez itsasuntzia hondoratzen ari denekoa. Gainera, kontuan hartu behar da argazkiak 1915 ingurukoak direla eta orduan zer kamera erabiltzen ziren.

Liburu hau abenturazaleentzat egokia da, eta gehienbat, abenturak bizi beharrean, abenturak amesten ditugunontzat.



Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Loitz

* Eskola eta
bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422





Ikaro Muletaduna

Beno, azkar, presa dugu eta. Sartu kotxean.

Bale, iritsi gara. Irten. Atea itxi. Norbaiten osaba, konpromisozko hitzak, familia, etab. Asteburua da, adibidez gu. Azpeitiara etorri gara Ikaro ikustera, antzerkia, musika, dantza nahasketa bat. Antzerkia? Bai. Segi, baina Juan Carlos Perezen musikarekin, Itoizkoa. A, bale, goazen. Zuzenean jotzen, antzerkia eta dantzaren arteko zerbait. Bu, itxita dago sarrerako atea. Geroago hartuko ditugu.

Bokadiloa Riojanon: udaberria (udaberria bokadilo bat da). Almondigena ez dut jarriko hemen, normala da, almondigekin bakarrik. Tabureteak. Goazen badaezpada, sarrerarik gabe? Ez dago irekita. Beste leku batean ...-ra. Lau ebaki. Pixa. Bizkor. Orain bai, sarrerak (merke). Zumaiarrak asko (aupa Zumaia). Listo, eseri, teloiaren azpitik berotzen ikusten ditugu dantzariak. Tarara-ratata. Hasi da, Ikaro goian, inguruan gainontzekoak, teloiaren atzeko silueta horiek dira. Dantza kontenporaneo hau nahiko teatrala da: alaitasuna=alaitasuna, angustia=angustia, etab. Ze musika polita.

Nola da Ikaroren mitoa? Hegan: eguzkiraino, hegala urtu eta danba. Testu gutxi: Benedetti, Sarrionaindia, Brecht, Borges... (lautik hiru B-rekin hasten dira, hau aztertu beharko litzateke). Bestalde ETBko bost bikoizlarietatik batek behintzat gorputza du (hau ere aztertu beharko litzake). Baina hitzak ez zaizkigu iristen. Musika bai. J.C. Perez ez da jeinu bat baina kanta jenialak egiten ditu. Hitzak berriz bideo pantailan errebotatzen zuen, gero dantzari baten besoan edo bularrean eta bazetorreanean batera kolpe batez besoa moztzen zion (krasssssh). Gure belarrietan zentzurik ez, noski. Bueltaka eta bueltaka.

Ikaro gazte bat da Maskaradaren bertsioan, diskoteketan drogatuta hegan egiten du, maitemintzen denean ere hegan egiten du, baina astelehena iristen denean danba erortzen da. Manikien munduan erloju gizonak agintzen du, gizon grisak gara denok. Aurreko lerroak oso sakona irten du, horregatik errepikatu egingo dut badaezpada ere. Manikien munduan erloju gizonak agintzen du, gizon grisak gara denok. Bas. "Momo" irakurri genuen guk ere ikastolan.

Alferrik da errebelatzea. Kanpora. Ikarok salto egin du. Bukatu da ikuskizuna, asko gustatu zaigu eta txalo jo dugu. Parte hartu duten guztiak irten dira eta hor deskubritu dugu Ikaro ez dela Asier Zabaleta dantzaria (munduak uzten dion hegaldi bakarra azkenean suizidio-arena dela baitirudi, hau obran noski). Ez, benetako Ikaro J.C. Perez da, idealista eta erromantikoa, muletek salatzen dute, hartu du lurraren kontra kolpea. Hala ere lehenago badakigu hegan ibilia dela, eguzkitik hurbil agian, eta gu ere bai. Bere kantuekin pixkat altxa gara lurretik, ordu eta erdiz bakarrik izan bada ere. Irten. Orain kotxea, karretera, larunbat gaua. Beretzat ere etzi astelehena izango ote da?

JON MANZISIDOR

Tel. 143278

Maite
ileapaindegia

KÉRASTASE
PARIS

ile-apaindegia

Maxi

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILE APAINDEGIA

Nerea Uranga

Etkezaretta, 19 Tel. 862342

OSA BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 861412



"HI... BAI, HIREKIN ARI NAUK HIZKETAN LASAI, EZ LARRITU! GAUZA BAT ESAN BEHAR DIAT..."



"BEGIRA EZAK BERE AURPEGIA. HIRE BIZITZAKO MISERIETAZ ARI DUK BARREZKA. HI BAINO GEHIAGO..."



EZIN DIAT JASAN GEHIAGO. EROTZEN HASIA NAUK. ZER ARI ZAIK GERTATZEN



"BEGIRA EZAK HIRE ONDOKO PUTASE - MEA. HITAZ ARI DUK BARREZKA. HI BAINO GEHIAGO DELA USTE DIK."



"... DELA PENTSATZEN LAGA BEHAR AL DIOK? ZAPALTZEN UTZIKO HAIZ?"





argazki zaharra



Josetxok ja hogeitamar urte nahiko atzean lagata zituen Hotel Amaya puskatzen ari ziren hartan argazkilaria zegoen lekutik birrinketa ikusten geratu zenean udaberriko egun eder hartan. Eskubira begiratzean ikusitakoak harritu zuen. Jende multzo handi bat zegoen triskaketari begira, berriketan, elkarri iruzkinak eta azalpenak ematen, aurpegieta inolako hunkipenik edo tristurarik agertu gabe eta gainera axalkeria besterik ez ziren ari esaka elkarri. Hala iruditu zitzaion behintzat. Josetxok ezin zuen ulertu nola zitekeen ikuskizun penagarri haren aurrean ez goibeltzea. Hotel zahar bat begi aurrean desagertzen ikusteak bere penatxo ematen zion, baina mingarria ez zen hori, samingarriena haurtzarotik hainbeste ordu eder barruan gozatzen iragandako zine aretoa desagertzen ikustea egiten zitzaion. Inori ezer esan gabe atzeko aldetik eskubitik ezkerreantz buelta osoa eman zine aretoan sartu zen azken agurra emateko asmoz. Sarreran beheko butaketarako ate aurrean gelditu egin zen, eta ezker eskuinerako bi korridoretako hormak pelikuletako kolorinetako kartel handiak edo afitzrez beteak irudikatu zituen. Goiko oilatokira joateko harritzko eskailera aurreko ezkerreko horman bi ilara koadro ere ikusi zituen irudimenean, behekoak asteartean bota behar zuten pelikulenak eta goikoak ostegunean bota behar zutenenak. Eskuinaldeko mailadi aitzinean behekoan zapatuko koadorak eta goikoan igandekoak ikusi zituen bezala. zurubi gora jo zuen. Hango leiho handitik une batean kanporantz begiratu zuen oraindik apurtzeke zegoen piszinari azken soa botatzeko goiko projektore-gelako bozkoragailutik "Coimbra en Portugal" Nino Rota-ren musika liluragarria oroitzaren indarrez entzuten zuelarik. Oilatokian sartu eta estreinengo ilaran zutik, aurreko pantaila ja desagertuaren lekuan obra-hondakinak zeudelarik, erdilunpe hartan, ia-ia titiko umea

zenetik pelikulak ikusten jardundako Josetxo urtero abuztuan egunero zinean botatzen zuten garaietan murgildu zen. Etxean dirurik ez, zinera joan nahi eta txanponak arranplan urazpitik lortzen zituen. Hotel Amayara etorritako udatiar frantsesei "Hechen perras! Que sacamos con la boca!" sonda handiena zegoen lekuan deiadar egiten zien mutil-koxkor multzoak. Turistek perrondixak eta perrotzikixak bota, ume denak igerian zain egon txanpon denak hondoraino ailegatu arte, gero uretan murgildu zambularik egin gabe, begiak ondo ireki, txanponak hartu, ahoan sartu eta urazalean

gora begira ahoa irekitzen zuten frantsesek txanponak barruan ikus zezaten. Josetxok, beste mutiko denen moduan, beti izaten zuen lehorrean lagunen bat edo lehengusuren bat, eta hotzak dardaraz ematen zizkion txanponak honek gorde zitzaion. Peseta bat osatuz gero (hamar txakurraundi edo hoge txakur-triki) bazuen dirua zinerako eta sobera izanez gero, hurrengo egunerako gordetzen zuen biharamunerako zine ikustea ziurtatzeko. Eta igandetan? Neguan, aberatsak bazkaltzera joaten ziren ordurako egoten zen koadrila-rekin takila ireki zain. Zorte pixkat bazuten Teodoro Itturri atezainak irten eta laguntalde osoa barrura sartzen zuen erdiko eta alboetako korridoreetan egurrezko aulkiak jartzen lagun ziezaion. Gero, barruan gelditzen ziren. Sarrerako atea irekitzen zutenean, elkarri bultzaka, zalapartan, tropelean sartzen zen jendea oilatokira iristerako koadrila osoa han egoten zen aurrenengo iladan zoriontsu. Bai. Haurtzaroko eta nerabezaroko ordu ederrenak bere aurrean jadanik erdi birrindutako eta arratsalde hartan bertan betirako desagertuko zen areto hartan iragan zituela konturatuz, Josetxori ikaragarritzko negar gurea etorri zitzaion eta ez zuen egin bere amak "Gizonak ez dik negarrik egin behar bihotza eskuan ikusi arte" umetatik erakutsi ziolako. Aretorik irten, langileek bazkalondoan berriro bere suntsiketa lanean jarraitu behar zutela ikusi, plazan aparkatuta laga zuen automobila hartu, eta Getaria aldera abiatu zen lan txiki bat egitera. Arranaitzko errebueltan Orruaruntz, Amaya zineko haurtzaroko kantu zahar bat kantatzen hasi zen. Ezin izan zuen jarraitu. Eztarria korapilatu zitzaionarekin batera ezkerreko begitik malko anpulu batek ihes egin zion eta leiho irekiko haizeak zinerantz eraman zuen.

TXOAZKIN

Foto Mertzce

ZUMAIA tel: 943 86 17 07

etor zaitez!

Erreportaje

Jaunartze eta

Estudio argazkiak



KOSTA



GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatortz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpinteria metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxe: 943 - 86 03 20 ZUMAIA